

3.GAIA: EZAGUTZA ZIENTIFIKOA ETA GIZAKIAREN IDEIA: EPISTEMOLOGIA ETA GIZARTE LANGINTZA.

1. GIZAKIA: NATURAREN ETA KULTURAREN ARTEAN.

Gaiaren oinarritzko galderak:

1. Zein da giza natura?
2. Zer da azalpen zientifiko bat?
3. Nola azaldu dezakegu zientifikoki giza jokabidea?
4. Zein izan beharko luke giza eta gizarte zientzien metodologia?
5. Zein da giza jokabidearen azalpen zientifikoen erlazioa Gizarte Langintzaren praktikarekin?

GIZAKION OINARRIZKO EZAUGARRI EBOLUTIBOAK

→ Gizakiak animaliak gara, baina animalia oso bereziak; gizakion eta animalien arteko desberdintasun nagusi batzuk anatomikoak eta jokabidekoak dira.

→ Gizadia, hautespen naturalaren eboluzio mekanismoen bidez, gizatiarrak ez diren animalia espezieetatik sortutako espezie biologikoa da: hominidoen lerroebolutiboa txinpantzeen eta bonoboen lerro ebolutibotik duela 6-7 milioi urte bereizi zen soilik.

→ Gizakion berezko ezaugarri anatomiko batzuk:

- (1) Bi hanketan tente ibiltzea;
- (2) Kontra jarri daitezkeen hatz lodiak;
- (3) Garun handia (gorputzaren tamainarekin alderatuz);
- (4) Masailezur txikia;
- (5) Hile gutxi gorputzean;
- (6) Garapen motela; e.a.

→ Gizakion berezko jokabidezko ezaugarri batzuk:

- (1) Emozioen adierazpen zorrotza;
- (2) Inteligentzia: pentsamendu abstraktua eta sinbolikoa, kategorizazioa, e.a.;
- (3) Hizkuntza sinbolikoa;
- (4) Gure hilkortasunaren kontzientzia;
- (5) Garapen teknologiko handia;
- (6) Artearen eta zientziaren garapena;
- (7) Erljioaren eta moraltasunaren garapena;
- (8) Kooperaziorako gaitasun handia; e.a.

→ Gizakion berezko ezaugarri nagusietako bat kultura da, zeina gizakiok sortutako eta biologikoak ez diren jardueren eta sorkuntzen multzo gisa definitu dezakegu.

→ Kulturaren etorrerak eboluzio kulturala ekarri du, eboluzio modu superorganikoa (eboluzio modu organikora gailendu zaion eboluzio modua). Gizakion kasuan, azken mila urtekoetan, eboluzio kulturala eboluzio biologikoari gailendu zaio. Eboluzio kulturalak ingurunera egokitzeko aldaketa eta herentzia kulturalaren bidez funtzionatzen du, belaunaldiz-belaunaldi transmititzen delarik.

2. AZALPEN ZIENTIFIKOA. ZIENTZIAREN FILOSOFIA: ZER DA ZIENTZIA?

→ Zientzia modernoak Europan 1500-1750 urteen bitartean eman zen Iraultza Zientifikoan du jatorria.

Zer da zientzia? Zerk bilakatzen du azalpen/teori bat azalpen/teoria zientifiko bat?

→ Zientzia bizi garen mundua ulertzeko, azaltzeko eta aurreikusteko ahalegina (zientifikoak ez diren beste diziplina batzuk berdina egiten saiatu: erlijioa, artea...).

→ Filosofo/zientzialari askok uste: zientziaren ezaug. bereizgarriak mundua ikertzeko zientziak erabiltzen dituen metodo partikularrak direla: esperimentazioa, behaketa, teoriak eraikitzea, e.a.

→ Zientziaren filosofiaren zeregin nag. zientzia desberdinetan erabiltzen diren ikerketa metodoak kritikoki aztertzea da. Gainera, zientziaren filosofoen lanaren zati bat zientzialariek onartzen dituzten ideia batzuk zalantzan jartzea eta argitzea da (indukzioa, kausalitatea, probabilitatea, e.a.).

→ XX. mendean zehar, zientziaren filosofia zientziak pseudo-zientzietatik argi eta garbi bereizten saiatu zen.

→ XX. mendean, Karl Popper zientziaren filosofo austriarrak teoria zientifikoaren funtsezko ezaugarria faltsagarriak izatea dela defendatu zuen.

→ Teoria zient. batek esperimentazioaren bidez baieztatu/ezeztatuak izan daitezkeen aurreikuspen zehatzak egin behar.

→ Popper: ustez zientifikotzat jotzen diren teoria batzuk ez dute baldintza hau ez bete, ondorioz, ezin teoria zientifiko kontsideratu, teoria pseudo-zientifikoak. orduan: Freuden psikoanalisi+Marxen historiaren ikuspegi, adibidez.

→ Kuhnen kritika Popperi: zientzialariek ez dituzte teoriak baztertzen datuak/gertakariak teoriekin bateraezinak direnean (ez hasieran); teori+gertakari gatazka ezabatzeko bideak bilatzea da, teoria baztertu behar izan gabe.

→ Egungo ondorio zabalduna: zientzia jard. +teoria oso ezberdinak barnebiltzen dituen jarduera heterogeneoa, beraz, ez dago zientzia pseudo-zientzietatik bereizteko irizpide garbi bakarra.

ARRAZOIBIDE ZIENTIFIKOA

→ Zientziak, hasieran sinetsiko ez genituzkeen gauzak esan munduari buruz: biologiak txinpantzeen senideak gairela esan, geologiak Afrika/Hego Amerika 1...

Ondorio hauetara iristeko arrazoibide prozesuak erabili zientzialariek eta Arrazoibide zientifikoaren artean, hurrengoak azpimarratu ohi dira:

➤ Dedukzioa eta indukzioa.

➤ Azalpen onenaren inferentzia: azalpenaren ikuspegitik hipotesi hoberena aukeratu, datuekin hobekien koinziditzen duena (eboluzioaren teoria, adibidez). Gertakariak:

(1) Apur gutxi batzuk izan ezik, jaki-tokian zegoen gazta desagertu egin da

(2) Aurreko gauean atzaparkadak ziruditen zaratak entzun nituen jaki-tokian.

Ondorioa (hipotesia): sagu batek gazta jan du.

➤ Probabilitatea.

➤ Arazoa: hipotesi ezberdinen artean azalpen onena zeinek eskaintzen duen erabakitzea (irizpide arruntena: [parsimoniaren printzipioa]).

AZALPEN ZIENTIFIKOA

→ Zientzien helb. nag. bat munduan gertatutako gauzak azaltzen saiatzea: zientziak ez ditu deskribapenak soilik egiten, bilatu ere; zientzia fenomenoek zergatiaz ere arduratzen da.

→ Batzuetan fenomenoek azalpen zientifikoak helburu praktikoekin bilatzen ditugu; bestetan, berriz, gure jakin-min intelektuala asetzeko soilik.

→ Zerbait (zientifikoki) azaltzea galdera mota zehatz batzuei erantzunak ematen saiatzea da: "zergatik...?" moduko galderak.

LEGE ZIENTIFIKOEN EREDUAK

→ Lege fisikoa: edozein partikula abiadura konstantez higituko da berarengan eragiten duen indarrak ez badago.

→ Lege biologikoa (gizaki kasu): erretzearen ohiturak biriken minbizia probabi igo.

→ Lege psikologikoa: pertsona batek p nahi baldin badu, eta ekintza baten bitartez p lortuko duela uste badu, gainera ekintza bideragarria bada eta hala uste badu, etab. orduan (ezerk eragozten ez baldin badu) ekintza hori egingo du.

→ Lege ekonomikoa: gainontzeko faktoreak berdin mantentzen badira, produktu baten prezioa handitzean, produktuaren eskaria murriztu, produktuaren prezioa txikitzean berriz, produktuaren eskaria handitu.

AZALPEN NOMOLOGIKO-DEDUKTIBOA

→ Carl Hempel: zientifikoek argudio baten egitura logikoa daukatela iradoki zuen: ondorio batera eramaten duten premisetan oinarritzen dira.

→ Ondorioak azalpena behar duen fenomenoak gertatzen dela baieztatzen du, premisek ondorioa zergatik egiazkoa den esaten diguten bitartean.

→ Zein da premisen eta ondorioaren arteko erlazioa azalpen zientifiko batean? Hempelen erantzuna hirukoitza izan zen:

1. Premisek ondorioa inplikatu behar: argudioa deduktiboa izan behar da.
2. Premisa guztiak egiazkoak izan behar dira.
3. Premisen artean, gutxienez, lege orokor bat egon behar da.

→ Hempelen azalpen zientifiko nomologiko-deduktiboaren eskema: Lege orokorrak Gertakari partikularrak Azalpena eskatzen duen fenomenoak

→ Ereduaren arabera, azalpenaren gakoak azalpena eskatzen duen fenomenoak naturaren lege orokor batengatik "estalia" dagoela frogatzea da.

→ Azalpena eta aurreikuspena dira, Hempel: txanpon berdinen bi alde: fenomeno bat lege estaldura inferentzial baten bidezko azalpenaren bidez azaltzen dugun bakoitzean, erabiltzen ditugun lege eta gertakari partikularrek fenomenoak gertatuko dela aurreikusteko gaitasuna eskaintzen digute.

AZALPEN NOMOLOGIKO-DEDUKTIBOA (ND)

- Lege orokorra: tenperaturaren muturreko beherakadak ura izozten du.
- Lege orokorra: hodietako ura izozten denean, hodiak apurtzen dira.
- Gertakari partikularra: tenperaturaren muturreko beherakada gertatu da.
- Gertakari partikularra: etxeko hodiak urez beteta zeuden.
- Etxeko hodiak apurtu dira (azalpena eskatzen duen gertakari partikularra).

AZALPEN INDUKTIBO-ESTATISTIKOA (IE)

→ Azalpen nomologiko-deduktiboak gertakari partik. azaltzen ditu lege orok. subsumituz; horrela, gertakari partik. gertatzea guztiz aurreikus daiteke.

→ Gertakari partik. guztiz aurreikus ezin daitezkenean ere aurreikus daitezke
→ Lege unibertsalen/estatistikoek ezberdintasuna: lege estatistiko, premisek ondorioa bermatzen dute 0 eta 1 bitartean dagoen probabilitatearekin (lege unibertsal, probabilitatea beti 1ekoa).

→ Gertakari partik. azalpen inductibo-estatistikoak lege estaldura inferentzialen bidezko azalpenak dira baina, kasu honetan, inferentzia inductiboa da eta premisen arteko legeetan gutxienez lege estatistiko/probabilistiko bat dago.

→ Azalpen inductibo-estatistikoaren eskema: Lege orokorrak (legeetako bat lege estatistiko/probabilistikoak) Gertakari partik. Azalpena eskatzen duen fenomeno

→ Lege estatistikoak: 40 urtetan 3 tabako pakete erretzean ondorioz biriketako minbizia izateko probabilitatea 1etik gertu dago.

→ Gertakari partikularra: 'X'ak 40 urtetan 3 tabako pakete erre ditu egunean.

→ Mikelek biriketako minbizia dauka (azalpena eskatzen duen gertakari partikularra).

AZALPEN KAUSALA ETA MEKANISMOAK

→ Filosofo batzuen iritziz, azalpen zientifikoek gakoak kausalitatearen kontzeptuan aurkitzen

→ Kasu askotan, fenomeno bat azaltzea fenomeno kausatu duen faktorea identifikatzea

→ Gizarte zientziak, beste zientzia empirikoak bezala, gertakariak eta jazoerak azaltzen saiatzen dira.

• Adibidea: Donald Trump presidente gisa aukeratuta atera izana jazoera bat da. Bozkatzen duten pertsonen artean gehiengoak partidurrepublikanoa bozkatzea gertakari bat da. Zentzuduna dirudi Trumpen garaipena azaltzea bozkatzen duten pertsonen artean gehiengoak partidurrepublikanoa bozkatu izanagatik.

→ Gizarte zientzietan, oinarrizko jazoerak giza ekintza indibidualak dira, sineskerak osatzearen gogo ekintzak barne.

→ Gertakari bat azaltzea, gertakari hori zergatik gertatu den azaltzen duen kontaketa bat osatzea da.: Azaldu nahi den jazoera azaltzeko hori kausatu duen alde aurreko beste jazoera bat aipatzen da, bi jazoerak erlazionatzen dituen mekanismo kausalaren deskribapenarekin batera.

Jazoeren azalpen kausalek bete behar dituzten bost baldintza:

1. Azalpen kausalak adierazpen kausal zuzenez desberdindu behar dira: ez da nahikoa kausa aipatzea, mekanismo kausala ere identifikatu behar da edo, gutxienez, iradoki behar da.
2. Korrelazioetatik bereizi behar dira.
3. Baldintza beharrezkoen baieztapenez desberdindu behar dira: jazoera bat azaltzea jazoera hori gertatu den moduan zergatik gertatu den azaltzea da.
4. Istorioren narrazioetatik desberdindu behar dira.
5. Aurreikuspenetatik desberdindu behar dira.

→ Ikuspegi honen arazo nagusia azalpen zientifiko batzuk azalpen kausalak ez direla da (adibidez, teorien osieran ematen diren azalpen hoberenaren inferentzia batzuk).

GIZA JOKABIDEA AZALTZERAKO ANKAUSALITATEAREKIN ARAZOAK

- Giza jokabidearen azalpenak kausalitate terminoetan gutxienez sei arazo nagusi dauzka:
1. Baldintzak berdinak izan arren, ez dugu beti berdin jokatzeko. ezberdinak gara
 2. Erabakiak, batez ere besteenak ezin enpirikoki egiaztatu, zentzumen bidez hautematea ezinezkoa
 3. Gizakiok egoeraren pertzepzioaren eta ulerpenaren arabera jokatzeko dugu.
 4. Gizakiok estrategikoki jokatzeko gaitasuna daukagu.
 5. Posiblea da giza jokabideen atzeko baldintza kultural/sozial berriz ez errepikatze
 6. Giza jokabideen determinazio kausala, kausa konplexuak, beraz, ezagutu ezinak

KAUSALITATEAREKIN ARAZOAK GIZA JOKABIDEA AZALTZERAKOAN: PSIKOLOGIAREN ARAZOA

→ Psikologiaren helburua jendea ulertzea da: nola pentsatzen dugu eta zergatik egiten ditugu egiten ditugun gauzak.

→ Arazoa: pentsatzen eta egiten ditugun gauzak faktore desberdin askorengatik baldintzatuta egon daitezke (oso arraroa da gauzak arrazoi bakarragatik egitea; gauzak arrazoi anitz desberdinengatik egiten ditugu, horietariko batzuk inkontzientek ere izan daitezkeelarik).

→ Psikologiaren historiak irakasten digun irakaspen nagusietako bat da gogoaren eta/edo jokabidearen aspektubakarrean zentratzea nahikoa ez dela (gauzak arrazoi anitz desberdinengatik egiten baititugu).

→ Giza jokabidea ikuspegi desberdinetatik aztertu behar dugu, faktore eta eragin desberdinak jokabide zehatz batemateko nola konbinatzen diren ulertzen saiatzeko.

→ Giza jokabidea azaltzeko/aztertzeko psikologian erabiltzen diren azalpen maila desberdinak:

- | | |
|-------------------------------------|--|
| 1. Eragin kulturalak. | 6. Asmoak eta desioak. |
| 2. Eragin sozio-politikoak. | 7. Emozioak. |
| 3. Subkulturak eta estatus soziala. | 8. Ohiturak eta ikasitako asoziazioak. |
| 4. Talde sozialak, familia, e.a | 9. Genetika eta eboluzio biologikoa. |
| 5. Pertsonen arteko interakzioak. | 10. Fisiologia eta garuna. |

GOGOAREN FILOSOFIA: ZER DA GOGOA?

→ Gogoaren filosofia gogoaren izaera (pentsamendua eta esperientziak) aztertzen duen filosofiaren adarra da.

→ Oinarrizko galderak:

➤ Zer da gogoa/kontzientzia?

➤ Zein da gogoaren/kontzientziaren jatorria? Zergatik existitzen da gogoa/kontzientzia?

➤ Zertarako balio du gogoa/kontzientzia? Zein da gogoaren/kontzientziaren funtzioa?

→ Gogoaren ezagutzaren arazoa: esperientzia kontziente bat nolakoa den beste pertsona bati azaltzen saiatu noizbait)? Migraina krisi bat, maiteminduta egotea, deprimituta egotea, antsietate krisi bat...

→ Bi tesi/azalpen kontrajarriak:

1. Esperientziaren azalpena: esperientzia ezinbestekoa gogoa ulertzeko: esperientziak deskribatzea ez da nahikoa ulertzeko.

Ezin dugu esperientzia ezagutu esperimendatu ez badugu.

2. Azalpen zientifikoa: esperientzia kontzienteak nolakoak diren ezagutzeko esperientziak ez dira ezinbestekoak, natur zientzien bidez ezagutu daitezke. Fisikak, kimikak, biologiak gogoa/kontzientzia deskriba ditzakete

AZALPEN KAUSALA: JOKABIDEAREN AZALPEN NEUROZIENTIFIKOA

→ Phineas Gage, trenbideetako langilea, lan istripua izan zuen 1848an. Istripuan metalezko barra batek burua zeharkatu zion, garunaren lobulu frontala kaltetuz.

→ Istriputik sendatu ostean, bere izaera eta jokabidea aldatu ziren: jendea arrazoirik gabe iraintzen zuen, jokabide inpulsiboak, ezin bere burua kontrolatu, harroputza, arduragabekeriak jokatzen zuen...

→ Hil ondoren, Gageren garuna ikerketa zientifikorako erabili (buru-hezurra eta metalezko barra Harvard Unibertsitateko Medikuntza Museoan).

→ Bere kasua oso garrantzitsua, bertan ikusi nola garunak, izaera, emozioak, harreman sozialak eta erabakiak hartzeko prozesuak baldintzatzen dituen.

→ Oinarrizko tesia: jokabidearen oinarria biologikoa: jokabide eta gogoa azaltzeko garuna ikertu behar.

→ Aukeraketa arrazionalaren teorien kontra: teoria ekonomiko estandarraren arabera, erabaki arrazionalak hartzeko emozioak baztertu eta erabaki bakoitzaren onurak-kalteak kalkulatu behar dira.

→ Markatzaile somatikoaren hipotesia: emozioek jokabide/erabakiak hartzeko prozesua gidatzen dute

→ Markatzaile somatikoak emozioekin lotutako gorputz fenomenoak dira. Markagailu somatikoek jokabidea eta erabakiak hartzeko prozesuak baldintzatzen dituzte; emozioak garun fenomenoak dira.

AZALPEN INTENTZIONALA I: SINESKERAK, DESIOAK ETA EKINTZAK

→ Azalpen intentzionalak gizarte zientziak zientzia naturalez bereizten dituzte: oinarrizko azalpen unitatea gizarte zientzietan asmo batzuegatik gidatutako banakoek ekintzak dira. Jendeak egiten dituen gauzak azaltzea dute helburu: zergatik jendeak hartzen ditu hartzen dituen erabaki batzuk eta ez besteak.

→ Jokabide bat inentzionalki azaltzea jokabide hori intentzionala dela frogatzea.

→ Azalpen intentzionala ekintzen, desioen eta sineskeren erlazioan oinarritzen da: agente intentzionalak ekintza egin desioa asetzeko egokia dela uste duelako.

Azalpen intentzionalaren elementuak:

(1) Desioak: agenteak lortu nahi duena;

(2) Sineskerak: agenteak uste duena lortu nahi duena lortzeko bitartekoa;

(3) Arrazionaltasun printzipioa: eskura ditun bitartekoen arten, hoberena aukeratu

→ Ekintza bat intentzionalki azaltzen da etorkizunean lortu nahi den egoera zehazteko gai garenean; ekintzaren helburuak agentearen desioak dira.

→ Desioek agentearen ekintzak azaldu soilik desioak asetzeko sineskerekin konbinatzean. Sineskeren eta desioen arteko artikulazioan arrazionaltasuna zehazten dugu.

→ Intenzionalitatearen eta kausalitatearen arteko erlazioak gizarte zientzietan fenomenoak aztertzeke azalpen markoa eskaintzen digu: intentzionalki azaldutako ekintza indibidualak banakoaren arteko interakzioen azalpen kausalekin batuz.

→ Arazoak:

(1) Sineskerak eta desioak ezin dira zentzumeneren bidez hauteman

(2) Fenomeno zehatzak azaltzeko gai diren legeak formulatu daitezkeen zalantzan jarri daiteke

(3) Agenteen ekintzak aurreikusteko balio ez duten zalantzazko ezagutzak eskaintzen dizkigute azalpen intentzionalak

Gizakiok ez dugu beti arrazionalki jokatzeko.

→ Beste batzuen artean, arrazionaltasuna oztopatzen duten hiru faktore:

1. Borondatearen ahulezia (akrasia): batzuetan, bizitza ona/desio bat lortzeko egin beharrekoa jakin arren, kontrakoa den eta okerragoa den jokabidea aukeratu.

(adibidea: azterketa pilo dauzkat mahai gainean zuzentzeko eta badakit azterketak gero eta lehenago zuzendu, hobe izango dela niretzat. Hala ere, azterketak zuzentzen hasi beharrean, serie batikusten jartzea erabakitzen dut).

2. Lehentasunetan aldaketak:

a) Etorkizunaren deskontu hiperbolikoa: batzuetan, etorkizuna existituko ez balitz edo etorkizunak kezkatuko ez bagindu bezala jokatzeko dugu. Horregatik, epe luzerako sari hobeagoi balio gutxitu eta epe motzeko sari okerragoi balio gehio

(adibidea: nire hiriko maratoni erdian iaz baino denbora hobeagoa egiteko, badakit dieta aldatu eta gogor entrenatzen hasi behar dudala, beraz, datorren astean nire ohiturak aldatzen hasiko naizela agintzen diot nire buruari. Hala ere, bazkaldu ondoren txokolate

tableta erdia jaten dut postre gisa, datorren astetik aurrera ohitura honekin amaituko dudala nire buruari engainatu bitartean)

b)Seinaleekiko menpekotasuna: Erabaki bat hartu baina, ingurunean dauden estimuluen aldaketek hartutako erabakiarekin bateraezin jokabidea bultzatu.

(adibidea:astelehenean azterketa dudanez, gaur gauean alkohola edango ez dudala erabakitzen dut baina, nire kuadrilak txupito erronda bat eskatu duela ikustean, erabakia aldatu eta niretzako ere txupito bat eskatzeko esaten diet).

3. Desioetan oinarritutako pentsamendua: batzuetan, erabakiak sinetsi nahi ditugun gauzetan oinarrituz soilik hartzen ditugu, eskura ditugun (kontrako) ebidentziak kontuan hartu gabe (ikusinahi duguna soilik ikusten dugu)

(adibidea: eskuinaren kontra nago eta hauteskunde hauetan bozkatzera joatea garrantzitsua dela pentsatzen dut, eskuinak parlamentuan eserleku asko lortu ez ditzan, inkestek esaten baitute eserleku dezente aterako dituela eskuinak. Baina, hauteskundearen egunean, aje galantadaukat eta sofan botata gelditzen naiz bozkatzera joan beharrean. Azken finean, ziur nago jendearen gehiengoak eskuina bozkatuko ez duela eta, ondorioz, eskuinak ez dituela aulki asko aterako.)

AZALPEN INTENTZIONALA IV: BORONDATEAZ HARAINDI

→ Borondatea jokabide propioa definitzeko eta ordenatzeko gaitasun gisa def: orduan, arrazoizkoa dirudi ondorioztatzea, gizakiok gure ekintzen bidez onak kontsideratzen ditugun gauzak lortzen saiatzen garela

→ Pertsona batek gure ikuspegitik txarra den ekintza bat egitean, arrazoizkoa dirudi ondorioztatzea ekintza hori egiten duela bere ikuspegitik ekintza horren bidez ongi bat edo desio bat lortuko duela uste duelako.

- Adibidea: drogak hartzea txarra da (banakoaren osasunaren ikuspegi objektibotik); hala ere, drogak hartzen dituzten pertsonak ongi bat bilatu (modu zehatz batean sentitzea, bizitza soziala hobetzea, arazoak ahaztu...)

→ Borondatea edo modu zehatzean jokatzeko desioa askotan faktore desberdinengatik baldintzatuta, agenteak onak/baliotsuak kontsideratutako gauzak lortzea zailduz: ingurune faktoreak, borondate ahulezia, ezjakintasuna...

→ Gauzak horrela, interbentzio sozial eraginkorra egin nahi bada, ezinbestekoa azalpen intentzionalak eskaintzen digun ikuspegia baino ikuspegi zabalagoa bereganatzea, banakoarenetan soilik zentratuko ez dena

- Adibidea: drogekiko menpekotasunaren kasuan, testuingurua kontuan hartzen dituzten hurrengo estrategiak erabiltzen dira(kasu askotan, desioen/lehentasunen aldaketarekin lotutako estrategiekin konbinatuz):
 - Substantzia lortzeko aukera ekidin.
 - Arriskua gutxiesten duten usteen sorrera ekidin.
 - Seinaleekiko esposizioa ekidin.
 - Lagun edo konpainia batzuk ekidin.
 - Lagun edo konpainia batzuk sustatu.
 - Lehentasunak aldatu.

→ Borondatea indartzeko hurrengo estrategiak: Ohitura onak sustatzea; Helburu eta lehentasun garbiak zehaztu; Ezagutza berriak bereganatu eta garatu; Helburuen etalehentasunen oroigarriak ezartzea; Modu osasuntsuan elikatu...

ZERGATIK UTZI ZION JATEARI ROBERT SCHUMANNEK HIL ARTE?

- Robert Schumann XIX. mendeko musika klasikoko konpositore hoberenetakoa
- Hala ere, ez zen batere zoriontsua eta sakonki deprimituta sentitzen zen.
- Bere emazteak egindako piano kontzertu arrakastatsu batzuen ondoren, zeharo deprimituta zegoela esan zuen eta bere emateaz jeloskor zegoela onartu
- Denborarekin pozoitua izateari beldur hartu eta bizitza soziala alde batera utzi
- 1854ko otsailaren 27an, Rin ibaira bota zen zubi batetik.
- Erreskatatua izan ondoren, suizidatzen saiatzeagatik lotsatuta, emaztearen maitasuna merezi ez zuela uste eta ospitale psikiatriko batean ingresatua nahi
- Bi urte ingresatuta egon ondoren, jateari utzi eta 1856ko uztailak 29an hil zen, ospitalean bakarrik.

DEPRESIOAREN INGURUKO BI AZALPEN/GERTAKARI MULTZO

→ Azalpen kausal neurofisiologikoak (garuna):

- Depresioak osagai genetiko hereditarioak dituela dirudi.
- Hipotesi monoaminergikoa: depresioa garunean serotonina, dopamina eta noradrenalina bezalako neurotransmisore kantitate baxuengatik eraginda dagoela dirudi.
- Aldaketak sistema endokrinoan: hipotesi batzuen arabera, depresioak sistema endokrinan emandako aldaketa batzuetan du jatorria, bereziki kortisol maila altuengatik.

→ Azalpena: Schumannek hil arte jateari utzi zion garunean serotonina, dopamina eta noradrenalina bezalako neurotransmisore kantitate baxuak zituelako.

→ Azalpen intenzionalak (gogoak):

- Schumann izugarri tristea bere musika ona ez zela uste zuelako.
- Ikuspegi alderdikoia: gertaera negatiboetan zentratzeko joera
- Gehiegizko erantzukizuna: gertakari negatiboen erantzuleak direla uste

→ Azalpena: Schumannek hil arte jateari utzi zion beremusika nahikoa ona ez zela eta arrakastarik ez zuela uste zuelako.

3. AZALPENA VS. ULERPENA: POSITIBISMOA ETA HERMENEUTIKA.

→ Zientzia sozialen metodologian ohikoa da azalpena eta ulerpena bereiztea.

→ Wilhelm Dilthey filosofo alemaniarrak azalpena zientzia naturalen metodo tipikoa dela baieztatu, fenomenoek kausez arduratzen baitira. Ulerpena, aldiz, izpirituaren zientzien metodo tipikoa da, giza ekintzen nahiz erakundeek zentzuaz arduratzen baitira sineskeria eta intentzioetan oinarrituz.

→ Azalpena legez, gertakariez eta erlazio kausalez arduratu bitartean, ulerpena esanahiez, zentzuez eta erlazio kulturez arduratzen da.

→ Azalpenaren eta ulerpenaren arteko eztabaidan jokoan dagoena, zientzia naturalek gainontzeko zientzia guztien eredu izan behar duten ala ez da.

→ Filosofo batzuek uste dute natur zientzien azalpen metodoak ez direla nahikoak giza jokabidea azaltzeko; horregatik, giza jokabidearen ikuspegiak azalpena ulerpenarekin konbinatu behar dutela defendatzen dute.

AZALPENA ETA MURRIZTAPEN ZIENTIFIKOA

→ Zientzi adar ezberdinak ez baliokideak: zientzi batzuk besteak baino oinarritzogok.

→ Orokorrean, fisika kontsideratu ohi da diziplina zientifiko oinarritzogoa. Gainontzeko zientziek ikertutako objektuak, partikula fisikoez osatuta daudelako.

→ Inplikutzen al du honek, hasiera batean behintzat, fisikak gainontzeko diziplina zientifikoak subsumitu ditzakeela? Gainontzeko zientziak, azken finean fisikoak diren izakiak aztertzen dituzten neurrian, ez al dira fisikara murriztagarriak?

→ Filosofo eta zientzilari batzuek uste dute diziplina zientifikoek aztertzen dituzten objektuak, objektu fisikoak izanda ere, maila fisikoan modu anitzetan osatuta daudela, ondorioz, ezin direla soilik haien ezaugarri fisikoen bidez azaldu.

POSITIBISMOA

→ Positibismoaren arabera, zientzia naturalen metodoak gizarte zientzietan ere aplikatu behar dira.

→ Positibisten ustez, zientziek zientzien diskurtsoetatik independenteak diren errealitate objektiboak aztertzen dituzte.

→ Ezagutza zientifikoak enpirikoki egiaztagarriak dira eta zientziak lege orokorrak aurkitzean oinarritzen dira.

→ Positibismoaren bost tesi nagusi:

1. Metodo zientifikoaren batasuna: natur zientzien eta gizarte zientzien metodoen artean ez dago funtsezko desberdintasunik

2. Naturalismoa: naturalismo positibistak hiru tesi defendatzen ditu:

a) Murriztapena: ikerketa oro unitate atomiko oinarritzogotara murriztu daiteke.

b) Elkarrekikotasunean oinarritutako egiaren teoria: egia zientifikoaren eta errealitatearen artean elkarrekikotasuna dago.

c) Objektibismoa: natura zientzietatik independentea da eta modu neutral objektiboan ikertu daiteke.

3. Enpirismoa: zientziak esperimenduak egiten dituzte objektiboki existitzen diren lege kausal orokorrak aurkitzeko, hipotesiak egiaztatzeko, errealitatea azaltzeko eta etorkizuneko gertakariak aurreikusteko helburuekin.

4. Balio neutraltasuna: zientziek ez dituzte balio judizioak egiten haien azterketa objektuen inguruan.

5. Ezagutza instrumentala: zientziek teknikoki erabilgarriak diren ezagutzak bilatzen dituzte, praktikan modu eraginkorrean eragiteko helburuarekin.

HERMENEUTIKA

→ Hermeneutika interpretazio tekniken multzo bat da

→ Errealismoa positibismoaren oinarria den bitartean, konstruktibismoa tradizio hermeneutikoaren oinarria da: errealitate sozialak konstrukzio esanahitsuak dira.

→ Tradizio hermeneutikoak ez du zalantzan jartzen azalpena zientzien helburua denik, baina positibismoak defendatzen duen azalpenaren ikuspegi murriztatzailea kritikatzeko du, fenomenoaren interpretazio zabalagoa defendatuz.

→ Hermeneutikaren helburua mundu sozialaren ulerpenean da.

→ Tradizio hermeneutikoaren ideia nagusi batzuk:

1. Interpretazioa: azalpena eta deskribapena interpretazioaren menpe daude eta interpretazioa ez da behaketa hutsera murrizten.

2. Anti-zientifismoa: giza eta gizarte zientziak zientzia naturaletatik desberdinak, metodologiei dagokionez eta azterketaobjektuei dagokienez

3. Humanismoa: gizakiok interpretazioa ahalbidetzen duen giza natura sinboliko bateratua daukagu.

4. Konstruktibismo linguistikoa: esanahien eta sinboloen oinarria den heinean, hizkuntza gizartearen funtsezko egitura da.

5. Intersubjektibitatea: zientziaren eta haren azterketa objektuen artean harreman intersubjektiboa dago, baita zientzilarien artean ere.

4. GIZARTE LANGINTZA MOTAK ETA JOKABIDEAREN AZALPEN EREDUAK.

JOKABIDEAREN AZALPEN ETA GIZARTE LANGINTZA

→ Jendearen jokabideak behatzeko eta ulertzeko gaitasuna Gizarte Langintzaren praktika eraginkorren funtsezko osagaia da: teoria baten funtzio nag. GLn praktika profesionala gidatuko duen informazioa eskaintzea da.

→ Jokabidearen definizioa: izaki bizidun batek, testuinguru zehatz batean, dituen erantzunen multzoa da eta bulkadak, motibazioak, desioak, senak.... barne hartu

→ jokabideak 3 dimentsio desberdinengatik baldintzatuta daude: Bio, Psiko, sozial.

→ Giza jokabideari buruzko teoriak funtzio erabakigarria jokatzen dute GLn, erabiltzaileen jokabideak interpretatzeko erreferentzia markoak eskaintzen baitizkigute. Oinarri teoriko sendorik gabe, Gizarte Langintzaren praktika hutsetan oinarrituko litzateke eta uste hutsek ez dute oinarri informatibo sendorik eskaintzen pertsonekin lan egitendugunean.

→ Beraz, pertsona baten egoera ebaluatzeko eta haren oinarriko beharrak asetzeko helburuarekin interbentzio egokiasustatzeko, egin beharreko lehenengo gauza behar egoeran dagoen pertsona egoera horretara eraman duten arrazoiak ulertzea da (arrazoi horiek, askotan, jokabidearekin lotutako arrazoiak izango dira).

GIZA JOKABIDEAREN TEORIEK GIZARTELANGINTZAREN PRAKTIKAN NOLA ERAGITENDUTEN ULERTZEKO EREDUA I

• Evak 21 urte ditu eta alkoholikoa da. Ikasketa arazo handiak izan ditu bizitza osoan zehar eta epaile batekharen lehenengo bi semeen zaintza kendu zion, abusuak eta abandonua jasateko arriskuan zeudela epaitubaitzuen. Evaren bikote berria bera baino askoz helduagoa den gizon bat da, genero-indarkeria historialuzea duena eta, gainera, heroina kontsumitzailea dena. Behar baino lehenago jaio den ume goiztiar batizan berri dute. Jaioberriak arnasteko arazoak ditu eta apnea monitore batera konektatuta dago. Evarenetxera ailegatzan zarenean, Eva lurrean botata eta ia konorterik gabe aurkitzen duzu, esku arteanpiztutako zigarro bat duela. Evaren bikoteak haurtxoa berarekin tabernara eramanean du baina haurtxoarenesne botila eta apnea monitorea etxean utzi dituelaz ohartzen zara.

→ Evaren egoerak arazo zailak planteatzen dizkio gizarte langile bati, ziurrenik erabaki potentzialki mingarriak hartu beharko baititu.

→ Giza jokabidearen azalpenaren teoriak Evaren egoera interpretatzen lagunduko diote gizarte langileari, praktika profesionalen eragin zuzena izanez. Adibidez, beste batzuen artean, hurrengo ikuspegi teorikoak erabili zitezkeen:

1. Jokabidearen teoria kognitibok Evak bere jokabideak eta haien ondorioak ulertzeko duen gaitasuna ebaluatzen lagunduko dute: zer itxaron dezakegu Evak ulertzea?

2. Teoria konduktistek Evak zergatik arazoak sortzen dizkion jokabideak errepikatzen dituen azaltzen lagunduko dute: zeintzuk dira Evaren jokabideak baldintzatzen dituzteningurunearen estimuluak?

3. Teoria psikodinamikoek Evak erabili ditzakeen defentsak mekanismoak ulertzen lagunduko digute: zein da, haren egoera propioa ebaluatzerakoan, ukapenak jokatzen duenpapera Evaren gogoan?

4. Garapenaren teoriak Evaren eta haurtxoaren garapen egoera ebaluatzen lagunduko digute, garapen egoera bakoitzaren beharrak zehazten lagunduz: pertsona heldua bezalafuntzionatzeko gaitasuna al du Evak? Haurtxoaren garapen beharrak ulertzeko gai da?

5. Adikzioen inguruko teoriak itxuraz irrazionala den Evaren jokabidea azaltzen lagunduko digute: Evaren alkoholismoa automedikatze modu bat al da? Adikzioaren erortzekoaldez aurreko baldintzapen genetikoa al du?

INTERBENTZIO SOZIALAREN BI EREDU: JOKABIDEA ALDATZEAREN EREDUA VS. EREDU HUMANISTA/ EXISTENTZIALISTA

→ Ze gizarte langintza mota identifikatu ditzakegu ikusitako azalpen ereduak oinarri hartuta?

→ Gizarte langintzako praktika profesionalaren eredu desberdinak oinarri teoriko desberdinetan oinarritzen dira: giza jokabidearen eta giza naturaren ikuspegi desberdinek gizarte langintzako praktika profesionalaren ikuspegi desberdinak inplikatzan dituzte.

→ Interbentzio sozialaren ikuspegi desberdinek gertakari eta arazo sozialak aztertze modu desberdinak inplikatzan dituzte, honek, aldi berean, modu eraginkorrean arazoak konpontzen saiatzeko modu desberdinak inplikatzan dituelarik.

→ Interbentzio sozialaren bi eredu desberdinetan soilik zentratuko gara (neurri batean, kontrajarriak direnak): jokabidea aldatzearen eredu eta eredu humanista/existentzialista.

JOKABIDEA ALDATZEAREN EREDUA

→ Konduktismoa: pertsonen jokabidea ulertzea eta interpretatzea, jokabidea enpirikoki hauteman baitaiteke. Kontzientziaren analisia eta interpretazioa baztertu, ideiak eta asmoak ezin baitira enpirikoki hauteman.

→ Arazoaren garapena bultzatu dituzten faktoreak baino gehiago, arazoa sortzen duen jokabidea kontrolatzen dituzten ingurunearen baldintza bereziak kontuan hartzen ditu.

→ Tesi nagusiak:

- (1) Giza jokabidea jokabide automatiko zehatz batzuk suspertzen dituzten kanpoko kausa batzuegatik azaldu daiteke (estimuluaerantzuna); eta
- (2) Jokabidea baldintzapen prozesuen bidez ikasten da.

→ Bi tratamendu/interbentzio estrategia (banaka edo modu konbinatuan erabili daitezkeenak): (1) Erabiltzailearen jokabideak aldatu inguruan aurkitzen dituen faktoreen aurrean; eta (2) Ingurunean nagusi diren faktoreak aldatu.

→ Interbentzioaren helburua: jokabide batzuk lortzea, ezabatzea edo indartzea epe luzean, hau da, erabiltzailearen jokabidea aldatzea haren arazoak murrizteko edo desagertzeko helburuarekin.

→ Interbentzio sozial konduktistaren ezaugarri nagusiak:

1. Arazoa sortzen duen jokabidea baldintzatzen dituzten ingurunearen egoerak kontuan hartzen ditu, arazoaren sorrerarekin lotutako faktoreak baino gehiago.
2. Gizarte langilearen analisia arazoak sortzen dituen jokabidea azaltzea eragiten dituzten faktoreak determinatzea da (ez historia kliniko batengarapena).
3. Giza jokabide gehienak ikasketaren eta ingurunearen estimuluen bidez bereganatutakoak direla defendatzen du.
4. Zentzumenean bidez hauteman daitezkeen jokabide elementuetan oinarritzen da interbentzioa, asmoen, sineskeren eta desioen interpretazio subjektiboak alboratuz.
5. Errefortzuak erabiltzen ditu jokabide zehatz batzuk bultzatzeko, mantentzeko edo ezabatzeko.

→ Jokabidea aldatzearen ereduak interbentzioa arazoetan zentratzen du, erabiltzailea arazo gisa ikustea ekidituz (erantzukizuna ez du erabiltzailearen gainean jartzen).

EREDU HUMANISTA/EXISTENTZIALISTA

→ Eredu honen arabera, pertsonok auto-errealizazioa bilatzen dugu, gure ekintzen helburu nagusia hau izanik, honek ematen baitio zentzua gure bizitzari.

→ Inguruneak sustatutako mekanismo psikologikoetan oinarritutako azalpenak bazterten ditu eta pertsonok gure esperientziei ematen diegun esanahi subjektiboetan zentratzen da.

→ Pertsonen askatasuna, duintasuna eta aukeratzeko potentziala azpimarratzen ditu, pertsonak etengabeko garapen pertsonalean ulertzen dituen bitartean.

→ Pertsonok gure izaera bizitzan zehar hartzen ditugun erabakien bidez osatzen dugu, erabaki horiek askatasunagatiketa kontzientziagatik (asmoak, sineskerak, desioak, e.a.) determinatuta daudelarik.

→ Humanismoaren ekarpenak:

- (1) Gizakiaren ikuspegi holistikoa (ez murriztatzailea);
- (2) Ez ditu pertsonaren aspektu desberdinak bereizten arazoaren kausa gisa seinalatuz;
- (3) Sintomak barne arazoaren kanpoko adierazpengisa ulertzen ditu; eta
- (4) Ez da zentratzen sintomak ezabatzean, haien esanahia ulertzen saiatzen da.

→ Existenzialismoaren ekarpenak:

- (1) Gizakiok ez daukagu modu zehatz batean jokatzera bultzatzen gaituenesentziarik, libreak baikara;
- (2) Gizakiok modu intenzionalean jokatzen dugu mundu sozialean, gure bizitarizentzia ematen dioten helburuak bilatuz; eta
- (3) Aske aukeratzeko gaitasuna daukagu eta honek erantzukizunainplikatzeko du (benetako existentzia).

→ Interbenitzailearen, ereduak atentzioa pertsonen izaera pentsakorrean (asmoak, desioak, sineskerak) jartzen du; hori dela eta, guztiz errespetatzen ditu erabiltzaileak berak bere bizitza ulertzeko duen modua.

→ Interbentzioaren helburua erabiltzailea haren burua hobeto eta sakonago ulertzea da batez ere.

→ Erabiltzaileek, askotan, ideia/sineskera zehatz batzuk erabiltzen dituzte haien arazoetan mantentzeko eta haien jokabideak justifikatzeko, hortaz, ikuspegiak garrantzi handia ematen dio arrazoimena erabiltzeari ideia horiei aurre egiteko (gizarte langilearen papera).

→ Pertsona askea, autonomia eta haren arazoaren konponbidea da beti; erabiltzaileak ez dira zerbitzuen jasotzaile pasibo hutsak, agente aktiboak baizik, haien bizitzaren determinazioan paper zentrala jokatzen dute beti.

ARIKETAK

Drogekin arazo larriak dituen erabiltzaile batek ez du komunitate terapeutiko batean ingresatu nahi, gizarte langilearen irizpidearen aurka. Gizarte langile honen iritziz, kasu honetan, garrantzitsuena "jendea aldatzea baino, jendea bizi den mundua aldatzea da." (Skinner, 1971: 89. or.).

Hori aintzat hartuta, erantzun itzazu ondorengo hiru galderak. Giza jokabidearen azalpen eredu kausalari eta jokabidea aldatzearen interbentzio sozialaren ereduari dagozkien ideia nagusiak har itzazu erreferentzia moduan erantzunak ematerako orduan:

1. Nola azaldu zenezake erabiltzailearen jokabidea?

-Azalpen kausalaren oinarritzko ideiak azaltzea:

- Gertakarien ordena tenporala.
- Mekanismoa azaltzearen beharra.
- Azalpen kausalek bete beharreko baldintzak.
- Azalpen kausalen arazoa(k).

-Drogomenpekotasunaren kausen/hipotesien azalpena.

-Kasura aplikazioa.

2. Nolako argudioak erabiliko lituzke nagusiki gizarte langileak erabiltzailea komunitate terapeutikoan ingresatzea beharrezkoa dela justifikatzeko?

-Jokabidearen azalpen ereduaren eta gizarte langintzaren arteko lotura zein den azaltzea.

-Jokabidea aldatzearen interbentzio sozialaren ereduaren ideiak azaltzea:

- Zergatik zentratu interbentzioa jokabidean eta zeintzuk dira interbentzio sozial konduktistaren ezaugarri nagusiak?
- Zein da interbentzioaren helburua?
- Zein da ingurunearen garrantzia?
- Zeintzuk dira interbentzio estrategiak?
- Zein da errefortzuen garrantzia?

-Kasura aplikazioa.

3. Zein zentzutuan esan daiteke gizarte langile horrek ez lukeela erabiltzailearen autonomia aintzat hartuko bere esku hartzea gauzatzeko orduan?

-Zein da jokabidea aldatzearen interbentzio sozialaren ereduaren erabiltzaileen ikuspegia?

-2. gaian, "Etika eta Gizarte Langintza", ikusitako gizarte langintza praktikatzeko ze ereduarekin egongo litzateke lotuta jokabidea aldatzearen interbentzio sozialaren ereduak? Zergatik?

Alkoholikoa den eta alkohola utzi nahi duela ziurtatzen duen erabiltzaile batek uko egiten dio, gizarte langilearen irizpidearen aurka, Alkoholiko Anonimoetako bileretara joateari. Erabiltzaileak uste du gai dela bere kabuz eta laguntzarik gabe alkohola uzteko, nahiz eta urteak pasa dituen era horretan alkohola edateari utzi ezinik.

Jokabidearen azalpen eredu intentzionalaren eta interbentzio sozialaren eredu humanistaren/existentzialistaren ideiak oinarri hartuta, erantzun itzazu ondorengo bi galderak:

1. Nola azalduko luke gizarte langileak erabiltzailearen portaera? Alegia, portaera horrek gizarte langilearentzat zentzua izango lukeela nolabait arrazionala izango litzatekelako?

-Azalpen intentzionalaren oinarritzko ideiak azaltzea:

- Sineskerak, desioak eta ekintzak.
- Azalpenaren ordena tenporala.

-Kasura aplikazioa (erabiltzaileak haren jokabidearekin lortu nahi izan ditzakeen helburuak azaldu, sineskerei erreferentzia eginez).

2. Hala ere, gizarte langileak erabiltzailearen portaera azaltzeak, ulertzeak, ez du esan nahi gizarte langileak erabiltzailearen portaerarekin bat egin behar duenik: "kontua ez da bestearen gogoetei pasiboki men egitea; [bestearen gogoia ulertzerako orduan] pentsamendu aktiboa, alegia, kritikoa, indarrean sartzen da." (Collingwood 1936, 295. or.). Hortaz, zein beste zentzutuan da posible argudiatzea, hori aintzat hartuta, erabiltzailearen portaera razionala izatetik urrun dagoela gizarte langilearen ikuspegitik?

-Jokabidearen azalpen eredu eta gizarte langintzaren arteko lotura zein den azaltzea.

-Arrazionaltasuna oztopatzen duten faktoreak azaldu (erabiltzailearen desio/sineskera posiblei erreferentzia eginez).

-Interbentzio sozial eredu humanistaren/existentzialistaren oinarritzko ideiak azaldu:

- Auto-errealizazioa helburu gisa.
- Gure esperientziei eta egoerei ematen dizkiegun esanahi subjektiboen garrantzia.
- Sineskeren eta desioen inguruko lanketa, giza askatasunaren garrantzia azpimarratuz.
- Auto-ezagutza helburu gisa.

-Anti-paternalismoarekin lotura.

-Kasura aplikazioa.